

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Ezkurra ibaian malda bat eraiki da amuarrainek eta izokinek ibilguan gora egin dezaten Doneztebe parean

Jarritako harri-lubetak saneamendurako hodi-biltzaile batek eraturiko presa saihesten du.

Miércoles, 16 de octubre de 2013

Nafarroako Gobernuak malda bat eraiki du Ezkurra ibaiaren ibilguan lehendik zegoen presa saihesteko, Doneztebe parean, ibaiko arrainen migrazioa hobetu ahal izateko. Presa, Bidasoa ibaiarekiko bilgunetik 300 metro ingurura dagoena, arrainek "igarotzeko zailtzat" zegoen kalifikatuta, Nafarroako Gobernuak 2001ean egin zuen baina berriki eguneratu den presen eta oztopoen inbentarioaren arabera.

Antzina eraikitako desnibela da. Hasiera batean Erdi Aroko errota baten instalazioen parte zen eta, azken 20 urteetan, herriko saneamendurako hodi-biltzailea dago bertan. Hodi-biltzaileak ezkeraldeko auzoa sare nagusiarekin lortzen du. Jarduera burutu aurretik, presa

txikiak metro eta erdiko desnibela zuen, hau da, neurri handiko arrai batzuek eta ibilguaren baldintza jakinetan bakarrik egin zezaketen presan gora. Kasu honetan, irtenbidea harri-lubeta eraikitzea izan da, malda gisa, desnibela kentzeko. 26.227,11 €-ko kostua izan duen jarduerari esker, arrainen mugikortasuna eta izokinen igoera erraztu dira ugaltzeko baldintza ezin hobekak dituen tarte horretan.

Udazkenean, izokinek Kantauri itsasotik hasita igotzen dute ibaiaren hasieretaraino ugalketa-zikloa amaitu ahal izateko. Bidasoa ibaia 65 kilometro luze da guztira, eta ibaiadarrekin batera 477 kilometroko luzera du. Gaur egun, egiaztatu denez, izokinak ibilgu nagusiaren % 80 erabiltzen



Ezkurra ibaiko presa, malda eraiki aurretik eta ondoren.

du baina ibaiadarren luzeraren % 8ra baino ezin da iritsi, eta tarte horretan dago ugaltzeko aukera gehien. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak burutu duen jarduera iragazkortzeko ekintza estrategikoa izan da, tarte hori Bidasoaren ibaiadar nagusia den Ezkurra ibaiaren gunerik baxuena delako.

Azken hamarkadan, Nafarroako Gobernuak guztira 27 jarduera bultzatu eta burutu ditu arro horretako ibaiko jarraipena hobetzeko.

Galería de fotos



1,5 metroko desnibeleko presa malda eraiki aurretik.



Ingurumeneko Mendizaintzakoak arrainak kentzen obrak egin aurretik.



Lanak burutzen.



Funtzionamenduaren saiakera.



Malda abian. Oztopoa iragazkortuta.